

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 493/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onestea Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano jaunak Euskara, Kultura eta Kirol zuzendari postua uztea egindako zerbitzuak eskertuz**

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 443/2015 Erabakiaren bidez, Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano izendatu zen, Euskera, Kultura eta Kirol zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano Euskara, Kultura eta Kirol zuzendari kargutik kentzea, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko uztailaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA DEL VAL SANCHO**